


Aleksandr Popov markak guztiak hautsi ditzake berriro 50 eta 100 metro libretan urrea irabazten badu.

Gimnasia •

Jokoetako akrobatak

Alexei Nemovek Atlantan lortutako nagusigoari eutsi nahi dio, baina ez zaio batere erraza gertatuko




ATLETISMOA, igeriketa eta gimnasia dira Olinpiar Jokoetako hiru zutabe nagusiak. 1896tik gimnasia olinpiar kirola izan da, eta historian zehar domina gehien pilatu duten kirolariak gimnastak dira —Larissa Latinina sobietarrak 18 domina irabazi zituen—. Gimnasia artistikoa eta gimnasia erritmikoa izan dira aurreko arte kirol honen bi osagaiak. Lehenengoan gizonek zein emakumeek har dezakete parte —bakoitza bere aparailuekin—. Gimnasia erritmikoa emakumenkoentzat da bakarrik. Sydneyko Jokoetan kirol honek berrikuntza bat izango du, antolatzaileek beste modalitate bat gehitu baitiote egitarauari: tranpolina.

Nadia Comanecik Montrealen lehen hamarra lortu zuenetik kirol honek jarrai-

tzaile asko irabazi ditu, gimnastak jokoetako akrobatak bihurtu baitira. Indar eta sasoiak gain, haizea bezain lirainak behar dute izan, airean ezezkoak diruditen irudiak marrazteko euren gorputzekin. Bartzelonan Vitali Tserbo izan zen izar handiena. Atlantan, Alexei Nemovek sei domina irabazi zituen. Sydneyn nor nabarmenduko den jakiten ez da erraza, baina ziur norbaitek zakua bete domina eramango duela etxera.

Nemovek protagonista izan nahi du

Hogeita lau urte ditu, baina askok akabatutzat ematen dute. Atlantan sei domina lortu eta gero, errespetu handiagoa zor zaio. Beti izan du zailtasunak gainditzeko ahalmena, eta Sydneyn oraindik onenekin lehiatzeko gauza dela erakutsi nahiko du. Atlantan onena izan zen, sorbalda minduta izan arren. Urtebete behar izan zuen lesioa osatzeko, eta larri samar iritsi zen Munduko Txapelketara. Urrea irabazi zuen lurreko ariketan. Gero, eraztunetan erori eta 26. postuan amaitu zuen sailkapen orokorrean. Ez zitzaion gehiago eskatu, eskua hautsita baitzuen. Iazko Munduko Txapelketan urrea lortu zuen lurrean eta zaldian. Gutxiak zekiten hilabete lehenago ia ibiltzeko gauza ere ez zela, 1995etik duen bizkarreko arazo bat zela medio. Sydneyn dominaren bat lortu nahi du, baina ez pentsa agur esateko asmoa duenik. Atenasen emango omen ditu bere onenak.



Goiko argazkian, Alexei Nemov. Behekoan, Kavaeva. Biak urrea lortzen saiatuko dira.

Sydneyko sirenak

JENNY THOMPSONEK hirugarren jokoak ditu aurtengoak. Estatu Batuetako selekzioan urrezko domina gehien lortu duen emakumea da (5), baina guztiak erreleboetan. Thompsonen kale egin zuen Atlantan bakar-kako saioetan, eta orain erakutsi nahi du urrea lortzeko ez duela inoren laguntzarik behar. Munduko txapelduna izan zen 1998an 100 metroetan, tximeleta estiloan zein librean, eta iaz munduko marka ondu zuen, tximeleta estiloan.

Inge De Bruijn holandarra da Thompsonen aurkari nagusia. Biak adin berekoak dira (27 urte), baina De Bruijnek ez daki oraindik zer den olinpiar urrea lortzea. Bartzelonan hartu zuen parte, baina artean bigarren mailako igerilaria zen. Atlantarako ez zen sailkatu, eta mundu guztiak ahaztu zuen, 1998an erabat indarturik berragertu zen arte. 50 metroetan bera da azkarrena, tximeleta estiloan zein librean, eta 100 metroetan lehia estua du Thompsonekin. Sydneyrako bidean zazpi errekor ondu ditu.

Ivankov, arantza atera nahirik

IVAN IVANKOV bielorrusiarra da, espezialisten arabera, munduko gimnastarik onena, bere palmaresak halakorik ez dioten arren. Nemov baino urtebete zaharragoa da, baina ez da olinpiar urerik lortzeko gauza izan. Atlantan onena izateko faborito nagusia zen, baina

Akilesten tendoia hautsi zuen. 1997an munduko txapelduna izan zen berriro, eta iaz titulu hori hirugarrenez jarraian irabazteko aukera paregabea zuen, baina min hartu zuen beroketa saio batean. Sydneyn onena izan nahi du, patuak baimenik ematen badio.

Kavaeva gimnasia erritmikoan

GIMNASIA ERRITMIKOAN emakume bat nabarmendu da guztien gaineratik azken urteotan: Alina Kavaeva errusiarra. Europa eta Munduko txapelduna da, eta Sydneyn urte mordoan bat irabazteko aukera guztiak ditu. Gimnasia artistikoan, Svetlana Khorkina errusiarra Atlantan

lortutako urrea defenditu nahi du. 21 urterekin, aurkarien ahizpa zaharra dirudi, baina ez du amore eman nahi lehian aritu aurretik. Zanolodtxikova izango da bere aurkari arriskutsuena. Elenak 17 urte ditu, eta 1,45 metroko garaiera, Korkhinak baino 20 cm. gutxiago.